

BIRJIÑA MARIYA ETA EUSKALDUNA



Geranak Euskal-erri
Noblian jayuak,
Chikitatik Birjiña
Maitatzen oituak,
Nola nai ateratzen
Ditugu kantuak,
Badira Mariyaren
Gloriyaz sortuak.

Seaskatik mundura
Atera baño len,
Mariya alabatzen
Ikasi genduben,
Bere izen santubak
Gaitu gu poztutzen,
Jakiñ baño len penak
Zer ote diraden.

¡O Birjiña maitea!
¡Zeruben argiya!
Zu maitatzen bizi da
Euskaldun guztiya,
Zure mantuak gorde
Du Euskal-erriya,
Zu zera gure poz ta
Atsegin biziya.

Urrutira joatian
Gure sort-erritik,
Arkitzian penetan
Ichaso azarontzik,
Triste igarotzian
Gabonak bakarrik,
¿Zerk pozten du euskalduna
Mariyak besterik?

An, Kuban, arkitzen da
Mutill bat penatzen,
Echekuak dirade
Beraz gogoratzen:
¿Nork ditu ura ta obek
Gošo konsolatzen?
¿Zeñen izen santubak
Ditu gozatutzen?

¡O Birjiña Mariya!
Diyote guztiyak,
Zuk dakizu zer diran
Miñ izugarriyak,
Zuk izan zenituen
Munduan larriyak,
Zuk kenduko dituzu
Ditugun antsiyak.

Batek Arantzazura
 Du begiratutzen,
 Bestiak Begoñako
 Birjiñan pensatzen,
 Bestiak Iziarra
 Biotza biraltzen,
 Bestiak «Guadalupen
 Ama det» esaten.

Mariyaren elizaz
 Daude estaliyak,
 Euskal-lurreandiran
 Arkaitz ta mendiyak:
 Jauna adoratzeko
 Onak dira goiyak:
 An sentitzen dirade
 Bere mirariyak.

Jauna chit aundiya, da,
 Chikiyak berriz gu,
 Bere izen santubak
 Chit izutu gaitu,
 Eta bitarteko bat
 Gozo biar degu,
 Zerura gure deiyak
 Ditezen alchatu.

Bitarteko ori da
 Birjiña Mariya,
 Jesusen eta gure
 Ama maitatiya,
 Lore guztiyen lore
 Chit choragarriya,
 Aingeruben Erregin,
 Santuben gloriya.

Goizeko izarra da,
 Zeruko atea,

Gaiñoen sendagarri
 Berdiñik gabea,
 Triste dauden animen
 Konsolatzallea,
 Fedearen kucha ta
 Dabiden dorrea.

Euskal zar batek digu
 Erakutsi guri,
 Nola kanta gozoro
 Zeruko Amari:
 «¡O Birjiña Mariya!
 ¿Zer konpara zuri?
 Elur egin berriya
 Ez zait aski churi.»

Euskaldun orrek berak
 Erakutsi digu,
 Mariyaren sorrera
 Guk nola kantatu:
 «Gure lenengo aitamen
 Pekatuak ez du,
 Sekulan Mariyaren
 Anima goibeldu.»

Esan zagun beti guk
 Biyotz-biyotzetik,
 Mariyaren izena
 Zerura jatorik,
 Ez dala guretzako
 Penik eta miñik,
 Birjiñak lagundutzen
 Badigu zerutik.

Eta orain, fedez beterik,
 Esan zagun barren-barrendik:
 Agur, agur, agur Mariya,
 Gorde beti Euskal-erriya.

BONIFAZIO ECHEGARAY-KOAK.